



OTOITZA

Gaixo egon nintzen eta ikustera etorri zinen,
nire izenez deitu ninduzun,
eta goizero etortzen zinen irribarretsu esatera:
egun on.

Zuretzat norbait izan nintzen, ez zerbait,
pazientziaz onartu zenituen nire inpazientziak,
eta ni ikustera etortzen zinen bakoitzean bakea
ekartzen zenidan.

Ni beldurrez nengoen, izututa;
zuk lasai eta maitasunez hartu ninduzun,
eta nire burkoa egokitu zenuen
hobeto senti nendin.

Trebeziaz tratatu ninduzun
eta beharrezkoa eman zenidan:
maitasuna, ulermena, entzutea.
Eta horrekin guztiarekin Jainkoa eman zenidan.

